Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

4555

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 13koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Güeñesko (Bizkaia) Sodupe auzoan dauden Arantzibia Etxea (Yermo Jauregia, Etxe-Zaindarien Etxea, Ukuiluak eta Lorategia) eta Isusi Baserria biltzen dituen Multzoa, monumentu-multzo kategoriarekin, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzeko espedienteari hasiera eman, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko Ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Güeñesko (Bizkaia) Sodupe auzoan dauden Arantzibia Etxea (Yermo Jauregia, Etxe-Zaindarien Etxea, Ukuiluak eta Lorategia) eta Isusi Baserria biltzen dituen multzoak daukan kultura-interesa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Güeñesko (Bizkaia) Sodupe auzoan dauden Arantzibia Etxea (Yermo Jauregia, Etxe-Zaindarien Etxea, Ukuiluak eta Lorategia) eta Isusi Baserria biltzen dituen multzoa, monumentu-multzo kategoriarekin, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskinean agertzen den mugaketarekin, eta II. eranskineko deskribapenarekin bat etorriz.

Bigarrena.– Güeñesko (Bizkaia) Sodupe auzoan dauden Arantzibia Etxea (Yermo Jauregia, Etxe-Zaindarien Etxea, Ukuiluak eta Lorategia) eta Isusi Baserria biltzen dituen multzoa, monumentu-multzo kategoriarekin, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzeko espedientea jendaurrean jartzea 20 egunetan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatuta. Epe horretan alegazioak eta egoki iritzitako dokumentazioa aurkeztu ahal izango da, horixe xedatzen dute-eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluek. Espedientea Kultura Ondarearen Zentroan egongo da ikusgai (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

4555

RESOLUCIÓN de 13 de julio de 2009, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un período de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Conjunto Monumental, del conjunto formado por la Villa Aranzibia (Palacio de Yermo, Casa de los Guardeses, Establos y Jardín) y el Caserío Isusi, sitos en el Barrio de Sodupe de Güeñes (Bizkaia).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16.ª de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural que presenta el conjunto formado por la Villa Aranzibia (Palacio de Yermo, Casa de los Guardeses, Establos y Jardín) y el Caserío Isusi, sitos en el Barrio de Sodupe de Güeñes (Bizkaia), atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Conjunto Monumental, del conjunto formado por la Villa Aranzibia (Palacio de Yermo, Casa de los Guardeses, Establos y Jardín) y el Caserío Isusi, sitos en el Barrio de Sodupe de Güeñes (Bizkaia), conforme a la delimitación que figura en el anexo I y a la descripción obrante en el anexo II.

Segundo.– Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Conjunto Monumental, del conjunto formado por la Villa Aranzibia (Palacio de Yermo, Casa de los Guardeses, Establos y Jardín) y el Caserío Isusi, sitos en el Barrio de Sodupe de Güeñes (Bizkaia), para que, durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián, n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Hirugarrena.– Ebazpena interesdunei jakinaraztea, bai eta Güeñesko Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura, Garraio eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari ere, jakinarazpenaren egunetik harako hamabost eguneko epean egoki iritzitako dokumentuak eta frogagiriak alegatu eta aurkez ditzaten.

Laugarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 13a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

Mugaketa

a) Mugaketaren deskribapena.

Mugaketak honako eraikin hauek hartzen ditu: jauregia, etxe-zaindarien txaleta, ukuiluak eta Isusi baserria; halaber, inguruko lorategiaren eta zuhaitzen zati bat.

Horrela, bada, mugaketa-eremuak honako muga hauek ditu: ipar-mendebaldean, Roblako trenbide zaharra; ipar-ekialdean, finkaren sarbide nagusiraino doan perimetro-pareta eta Isusi baserriko fatxada nagusitik 5 metrora trazatutako lerroa; hego-ekialdean, Isusi baserriko luzetarako fatxadarekin paralelo doan lerro bat, Atxeta auzoko errepidearekin bat egiten duen lekutik 5 metrotara trazatua, jauregiaren atzealdeko lorategiko mugatik jarraitzen duena (konposizio formalista duen atzealdeko lorategi osoa hartzen du) ukuiluak jauregiarekin lotzen dituen harri-zolazko bidezidorretik 2 metrora trazatutako bihurgune paraleloraino, eta gero ukuiluen ekialdeko albo-fatxadatik 5 metrora trazatutako lerroarekin jarraitzen duena; hegoaldean, ukuiluen atzealdeko fatxadarekin paralelo doan lerro bat, 5 metrora trazatua; eta mendebaldean, ukuiluen mendebaldeko albo-fatxadarekin paralelo doan lerro bat, 15 metrora trazatua, zuhaitzekin paralelo doan bihurgunetik jarraitzen duena, adaburuen proiekzio horizontaletik 3 metrora, albo banatan platanoak dituen bidezidorrarekiko lerro perpendikularrarekin bat egiten duen arte, eta bidezidorraren amaieran dagoen banku zirkular formako harrizko altzaritik 5 metrotara dagoena.

b) Mugaketaren arrazoiak.

Proposatu dugun mugaketaren justifikazioa eraikin multzo horren ingurumen- eta ikuste-balioak babestu beharra da, bai eta altzarien inguruko elementuak eta

Tercero.– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Güeñes y a los Departamentos de Cultura y Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

Cuarto.– Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia, para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de julio de 2009.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ANEXO I

Delimitación

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye las siguientes edificaciones: Palacio, el chalé de los guardeses, los establos y el caserío Isusi; así como parte del jardín y arbolado que las rodea.

De esa manera, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al Noroeste, la antigua vía del ferrocarril de la Robla; al Noreste, el muro perimetral de la finca hasta el acceso principal y la línea trazada a 5 metros de la fachada principal del caserío Isusi; al Sureste, una línea paralela a la fachada longitudinal del caserío Isusi trazada a 5 metros de distancia hasta el encuentro con la carretera al barrio de Atxeta, continuando por el límite del jardín trasero del palacio (incluyendo en su totalidad dicho jardín trasero de composición formalista) hasta una curva paralela trazada a 2 metros de distancia del sendero empedrado que une los establos con el Palacio y, siguiendo con la línea trazada a 5 metros de la fachada lateral Este de los establos; al Sur una línea paralela a la fachada trasera del edificio de los establos trazada a 5 metros de distancia; y al Oeste, una línea paralela a la fachada lateral Oeste del edificio de los establos trazada a 15 metros de distancia y, siguiendo por la curva paralela de la masa arbórea distante de ella 3 metros desde la proyección horizontal de la copa de esos árboles, hasta su encuentro con la línea perpendicular al sendero flanqueado por los plátanos y distante 5 metros del mobiliario final del sendero en forma de banco circular de piedra.

b) Justificación de la delimitación.


La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales, estéticos y visuales del conjunto de edificaciones en el entorno

horien ingurumen- eta kultura-balioa gordetzen laguntzea ere.

Horregatik, ezarritako mugaketak ez ditu eraikinak hartzen soilik, baizik eta hartzen du multzoaren eremu mugakidea ere, bai eta jauregiaren atzeko aldean dagoen lorategi formalista, kanpoko altzarietako elementu bereziak eta finkako lorategia antolatzen duten zuhaitzmultzo nagusiak ere.

ajardinado del que forman parte, así como para contribuir a conservar los elementos que rodean a los inmuebles y favorecer el mantenimiento de su valor ambiental y cultural.

Por ello, la delimitación establecida no incluye solamente las edificaciones propiamente dichas, sino que abarca el área colindante sobre el que se asienta el conjunto, incluyendo el jardín de composición formalista ubicado en la zona posterior del palacio, los elementos singulares de mobiliario exterior, así como las principales agrupaciones arboladas que organizan el espacio ajardinado de la finca.


límite de finca
Río Cadagua
camino de Santiago
alineación de plátanos
antiguo ferrocarril de la Robla
establos
restos Torre Zaballa
Palacio
chalé de los guardeses
caserío Isusi
ESKALA / ESCALA
40 20 0 40 Metros
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zerbitzua
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
Lurraldea / Territorio: BIZKAIA
Udalerria / Municipio: GÜEÑES
Data / Fecha: 2009/06/03
Eskala / Escala: 1:2.000

II. ERANSKINA

Deskribapena

Sodupe Goikoa auzoan, Arantzibiako finka itxia dago, eta, horren ondoan, Isusi baserria, bidegurutzean dagoen plazatxoaren inguruan. Finkaren barruan, eraikin nagusiaz gain, jauregiaz gain, alegia, bigarren mailako eraikin gisa, ukuilu-usategia, jauregiari lotutako etxebizitza txiki bat eta etxe-zaindarien etxebizitza daude; denak ere lorategi-finka zabal batek inguratzen ditu, eta horrek balio handia ematen die paisaia aldetik.

Arantzibiako jauregia bizitzeko eraikin bat da, arkitektura kultukoa; estilo erregionalistako eklektizismoari dagokio, eta xehetasun modernista txiki batzuk ditu. Eraikin exentu bat da, oinplano angeluzuzenekoa eta oso handia; beheko solairua, lehenengo solairua eta txapitula-formako bigarren solairua ditu. Estalkia arabiar teilakoa eta hegal handikoa da, eta oinplano osoa estaltzen du, malda-plano ugarirekin joko konplexu bat egiten duela, fatxaden ingerada agerian utziz.

Fatxada nagusia ekialdera eta sarrerako plazatxora begira dago, eta bi atal bereizten dira hor: sarrerako gorputz nagusia, miru-buztanaren forma duen gailur txertatu tipikoarekin errematatua; eta eskuinaldean, dorretxo-moduko beste gorputz bat, albo banatan estilo modernistako motibo geometriko originalekin landutako harrizko tximiniak dituena.

Fatxada honetan, sarbide nagusi berezi bat dago, arku-zuzena eta alboetan biko zutabe toskanarrak dituena. Sarreraren gainean, zeramikazko plaka bat dago, hitzez hitz honako hau dioena: «esta casa que hicieron los Yermo la restauró Carlos Palacio Avellaneda en el año de 1912» (Yermotarrek egin zuten etxe hau, eta Carlos Palacio Avellanedak berritu zuen, 1912. urtean). Bi tximinia trinkoen artean, lehenengo solairuaren parean, balkoi jarraitu bat dago, forjazko aurrealdea eta inguruan kuxindurak dituen bao arku-zuzenak dituena, eta, erremate gisa, goiko solairuan erdi-puntuko arkugaleria bat dago, adreiluzko hondoaren gainean.

Iparraldeko fatxada bi isurkikoa da, eta miru-buztanaren formako alaka bat du. Beheko solairuan, leihate handiko bolumen bat irteten da, dekoraziozko erdizutabe batzuek banatuta. Gorputz horrek, lehenengo solairuan, terraza handi bati ematen dio bide; terrazak forjazko balkoia du, eta bolazko errematek beheko solairuko erdizutabeetan. Fatxada horren eskuinaldeko saihetsean, karrerape atxiki bat dago; karrerape horrek arku beheratu bat du beheko solairuan, eta, gainean, Zaballaren armarria nabarmentzen da, bigarren solairuaren parean.

Alboko eta atzeko fatxadak mendebaldera eta hegoaldera begira daude hurrenez hurren, eta itxura erregularragoa dute, bao arku-zuzenen lerrokaduren

ANEXO II

Descripción

En el barrio de Sodupe Goikoa se encuentra la finca cerrada de La Villa Aranzibia y, junto a ella, el caserío Isusi en torno a la plazuela que se forma en el cruce de caminos. En el interior de la finca además de la edificación principal, el Palacio, también existen, como construcciones secundarias, el establo- palomar, una pequeña vivienda vinculada a él, y la vivienda de los guardeses; todas ellas rodeadas de la extensa finca ajardinada, que lo dota de gran valor paisajístico.

El Palacio de la Villa Aranzibia es una edificación residencial de arquitectura culta, corresponde al eclecticismo de estilo regionalista con pequeños detalles modernistas. Se trata de un edificio exento de planta rectangular y grandes dimensiones; consta de planta baja, planta primera y planta segunda abuhardillada. La cubierta, de teja árabe y amplio alero, cubre la totalidad de la planta con un complicado juego de múltiples planos de pendiente, que pone de relieve el contorno de las fachadas.

En la fachada principal, orientada al Este y hacia la plazuela de entrada, se distinguen dos partes, el cuerpo principal de entrada, con el típico remate de cumbrera encartado, en forma de cola de milano, y a su derecha el otro cuerpo a modo de torreta, custodiada en sus lados por sendas chimeneas de piedra trabajadas con originales motivos geométricos de estilo modernista.

Presenta un singular acceso principal en esta fachada, adintelado y enmarcado por dobles columnas toscanas en los laterales. Sobre la entrada se encuentra una placa de cerámica que dice literalmente: «esta casa que hicieron los Yermo la restauró Carlos Palacio Avellaneda en el año de 1912». Entre las dos macizas chimeneas se encuentra, a la altura del primer piso, un balcón corrido con antepecho de forja y huecos adintelados con recercos almohadillados y, remata el piso superior, una galería de arcos de medio punto sobre un fondo de ladrillo.

La fachada Norte se dispone a dos aguas, con chaflán en forma de cola de milano. En planta baja sobresale un volumen con grandes ventanales divididos por semicolumnas decorativas. Este cuerpo da lugar en planta primera a una amplia terraza en con balcón de forja y remates con bolas en las mencionadas semicolumnas de planta baja. En el lateral derecho de esta fachada se encuentra adosado un soportal con arco rebajado en la planta baja, y sobre el que destaca el escudo de Zaballa a la altura del segundo piso.

Las fachadas lateral y trasera, orientadas al Oeste y Sur respectivamente, adoptan un aspecto más regular, mediante alineaciones de vanos adintelados y faldón de

bidez eta fatxadarekin paralelo dagoen estalkiko isurki triangeluarraren bidez. Lehenengo solairuko teilatupea bereiziz, inposta molduratu bat dago, eta horren gainean, teilatupeko leihoek erdi-puntuko arkuen forma hartzen dute.

Fatxada landuak dira, zarpiatuak gehienak, eta oso apaingarri aberatsak dituzte: harriz landutako xehetasun ugari, harlanduzko paramentuak izkinetan, inguru landuak baoetan, inpostak, terrazak, adreiluzko bilbadura duten guneak, arkuak, dekoraziozko azulejuak eta kontraleiho vienarrak. Landare-ornamentazioa fatxadari arretaz atxikia dago, eta horrek ere eraikina ederragotzen laguntzen du.

Finkaren barrualdean, jauregitik 100 metro eskasetara, Arantzibiako ukuiluak daude. Eraikin hori finkaren goiko aldean dago, eraikuntzaren aurreko eta atzeko aldeen artean kokatua, hango malda berdintzen duela. Nahiz eta eraikin funtzionala izan, hau da, nahiz eta ukuiluak, zalditegia eta usategia jartzeko eraiki zuten, estilo eklektizistako arkitektura interesgarri eta landua du, eta eragin neomenditarra du.

Hain zuzen ere, eraikin exentu bat da, oinplano laukizuzenekoa eta dorre atxiki bat duena; beheko solairua, lehenengo solairua eta dorrea ditu. Estalkia teila zeramiko zapalez egina da; bi isurki ditu, gailurra alboko fatxadekin paraleloan dauka, eta dorreak hausten du, zeina nabarmendu egiten baita eraikinean.

Fatxada nagusia iparraldera begira dago. Hiru atal bereizten dira hor: ezkerreko saihetsean, lau isurkiko estalkia duen dorre bat dago; eskuineko saihetsean, harlangaitzez luzitutako eta izkinak harlanduzkoak dituen gune bat; eta bi atal horiek elkartuz, erdigunea, itxura arinagokoa, beheko solairuko karrerapeari esker; karrerape horrek zutabe toskanar bat du erdian, eta horren gainean bermatzen da lehen solairuko forjatua, egurrezkoa eta egurrezko bilbadura duen itxiturakoa.

Dorrearen paretak harlangaitzezkoak dira, eta harlandua izkinetarako eta baoen errematetarako gordetzen du. Beheko solairuan, sarrera gisa, erdi-puntuko landa-arku handi bat du, harrizko lauzaz egina. Dorrearen azken solairuan, «usategiko» hiru leiho ñimiño dituen bistako adreiluzko gune bat dago, adreilu-dentikuluzko hiru ilararekin egindako leiho-barrenaren gainean. Dorrearen saihets baten parean irteten den elementu originala nabarmentzen da, gainean pinakulu bat duen dorretxo zirkular batekin errematatua.

Ekialdeko fatxadan, albo-sarrerako atearen burua nabarmentzen da; hiru piezaz osatua dago, eta fatxadarekin paraleloan ipinitako petxinazko bi albo-mentsularekin zurkaiztua dago.

Finkako hormari atxikia, jauregiaren atzeko aldean, villari lotutako beste eraikin berezi bat dago: etxe-zaindarien txaleta, finkako zaindariei eta haien familiei ostatu emateko egina.

cubierta paralelo a fachada. Diferenciando el bajo cubierta de la primera planta se encuentra una imposta moldurada, y sobre ella las ventanas del bajo cubierta adoptan la forma de arcos de medio punto.

Son fachadas trabajadas, mayoritariamente enfoscadas, que presentan gran riqueza en la ornamentación: numerosos detalles trabajados en piedra, paramentos de sillería en esquinales, trabajados recercos en los huecos, impostas, terrazas, zonas con entramado de ladrillo, arcos, azulejos decorativos y contraventanas vienesas. La ornamentación vegetal, cuidadosamente adosada a la fachada, también contribuye a embellecer la imagen del edificio.

En el interior de la finca, a escasos 100 metros del palacio, se encuentran los establos de Aranzibia. Este edificio se emplaza en una zona elevada de la finca y se asienta, salvando el desnivel existente, entre la zona delantera y trasera de la edificación. Pese a ser un edificio funcional, construido para albergar los establos, la cuadra y el palomar, estamos ante una interesante y trabajada arquitectura de estilo eclecticista con influencia neomontañesa.

En efecto, se trata de un edificio exento, de planta rectangular y torre adosada; consta de planta baja, planta primera y torreón. La cubierta es de teja cerámica plana, dispuesta a dos aguas con caballete paralelo a las fachadas laterales y quebrada por el torreón que adquiere gran presencia en el edificio.

La fachada principal está orientada al Norte. En ella se diferencian tres partes: en el lateral izquierdo la torre, de cubierta a cuatro aguas; en el lateral derecho una zona de mampostería revocada y sillería en esquinales; y uniendo estas dos partes, la zona central de aspecto más ligero, mediante soportal en planta baja con columna central toscana, sobre la que apoya el forjado de planta primera, de madera y cerramiento de entramado de madera.

Los muros de la torre son de mampostería, reservándose la sillería para esquinales y remates de huecos. En planta baja se dispone, a modo de entrada, un amplio arco rústico de medio punto realizado con lajas de piedra. En la última altura de la torre aparece una zona de ladrillo visto con tres minúsculas ventanas «de palomar», sobre un alféizar realizado con tres filas de dentículo de ladrillo. Destaca el original elemento que sobresale en altura en un lateral de la torre, rematando a modo de pequeña torreta circular coronada con pináculo.

En la fachada Este destaca el dintel de la puerta de entrada lateral, compuesto de tres piezas y apeado en dos ménsulas laterales de pecho de paloma colocadas de forma paralela a la fachada, así como la chimenea de piedra con relieve geométrico.

Adosado a la tapia de la finca, en la zona trasera del palacio, se encuentran otro singular edificio vinculado a la Villa: el chalé de los guardeses, destinado a albergar a los guardas de la finca y su familia.

Txaleteko fatxada nagusia finkaren barrualdera begira dago; fatxada zaindua da, asimetrikoa, bi isurkiko estalkia du, eta arku beheratua duen sarbide zentratu bat. Lehenengo solairuan, balkoi handi bat dago, fatxadaren arrasean, eta egurrezko mallorkina pertsianak ditu. Estalkia teila zeramiko zapalez egina da, eta gainerako fatxadetako isurki triangeluarrak horiekin paraleloan daude.

Hego-ekialdeko fatxada hormari atxikia dago, eta errepidearekin egiten du muga; zerbitzu-patio txiki batetik ere sar daiteke horra. Bigarren mailako sarbide hori dekoratuta dago horman, estilo modernistako xehetasun kurbatuak dituen forjazko arku baten bidez. Finkaren kanpoaldetik, teila zapalezko estalkiak izkinan egiten duen kurbatura originala begiztatzen da.

Fatxadak adreiluz eginak dira, eta luzituta eta okre koloreekin margotuta daude; bao ugari dituzte, irtenguneen bidez markoztatuak, zokaloen gisan, beheko solairuan.

Arantzibia etxeko lorategia itxia eta zabala da (3,1 ha gutxi gorabehera), paisaia-izaerakoa, eta zuhaitz handi eta ertainek markoztatzen dute paisaia. Jauregiko lurzatiaren egitura zuhaitz-multzoen eta horien arteko tarteen bidez antolatuta dago. Espezie botaniko ugari daude, hala hemengo espezieak nola kanpo-espezieetako zuhaitz exotikoak.

Lorategia hainbat eremutan antolatuta dago: jauregiaren atzeko aldeak konposizio formalista du, eta bideen eta landarezko forma geometrikoen bilbe batek egituratzen du; jauregiaren saihetsean, egoteko leku bat dago, zoladura gogorrekoa; finkaren barruko aldea jolastoki gisa antolatua dago, eta tenis-pista txiki bat du; fruta-arbolak landatuta daude gune batzuetan, eta gainerakoa gune ireki bat da eta soropilak eta zuhaitzak daude. Hori dena bidezidorrek, zuhaixkek eta zuhaitzek egituratzen dute.

Lorategian elementu bereziak kontserbatzen dira, erabateko bizitegi-giroa lortzeko diseinatuak, hala nola harrizko elementuz jantzitako altzariak, harrizko banku jarraituak, pasealekuaren amaieran platano izugarrien lerrokaduraren artean dagoen egontokia, terrazak, iturria, urmaela, eskultura, ukuiluen saihets bateko putzua, bai eta harri-zolazko bideak ere.

Finkaren itxiturari dagokionez, esan daiteke harlangaitzezko pareta eder bat dela eta errepidearen maldari egokitzen zaiola. Horma horretan daude finkara sartzeko hiru sarrerak, eta horien artetik sarrera nagusia nabarmentzen da, sarrera plazatxotik daukana: sarrera bat dator jauregiaren konposizioarekin; bi zutabe ditu egurrezko ate handiaren albo banatan, eta Muxikaren armarria saihets batean, tenplete batean kokatua, bi ostiko dituen erlaitz baten gainean.

Arantzibia finkaren ondoan, hiru metro eskasetara, Isusi baserria dago. Bolumen garbikoa da, errepide estuaz bestaldera lerrokatua, zaindarien etxearen parean. Fatxada nagusia jauregiko finkaren sarreran dagoen pla-

La fachada principal del chalé, orientada hacia el interior de la finca, es una cuidada fachada asimétrica con cubierta a dos aguas y acceso centrado con arco rebajado. En planta primera se encuentra un amplio balcón a ras de fachada con persianas mallorquinas de madera. La cubierta es de teja cerámica plana y en el resto de las fachadas los faldones son paralelos a éstas.

La fachada Sureste queda adosada a la tapia lindando con la carretera desde donde se puede acceder, también, a través de un pequeño patio de servicio. Este acceso secundario aparece decorado en la tapia mediante un arco de forja con detalles curvos de estilo modernista. Desde el exterior de la finca se contempla la original curvatura que adopta la cubierta de teja plana en esquina.

Las fachadas están realizadas en ladrillo, revocadas y pintadas en colores ocres; presentan numerosos huecos, enmarcados por resalte a modo de zócalo en planta baja.

El jardín de la Villa Aranzibia es un extenso jardín cerrado (3,1 ha aprox.), de naturaleza paisajista en el que arbolado de gran y mediano porte enmarca el paisaje. La parcela del palacio se estructura por una ordenación de agrupaciones de árboles y espacios entre ellos. Se encuentra gran variedad de especies botánicas: tanto especies autóctonas como árboles exóticos de especies foráneas.

El jardín se organiza en diferentes zonas: la zona trasera del Palacio de composición formalista y estructurada mediante una trama de caminos y formas geométricas vegetales; una zona de estar con pavimentación dura, al lateral del Palacio; la zona inferior de la finca como zona de juegos con una pequeña pista de tenis; zonas con plantaciones de árboles frutales, y zonas abiertas de césped y arbolado en el resto. Todo ello estructurado mediante senderos, arbustos y arbolado.

Se conservan elementos singulares del jardín proyectados para lograr todo un ambiente residencial, tales como el amueblamiento con elementos pétreos, bancos corridos de piedra, zona de estar al final del paseo entre una alineación de enormes plátanos, terrazas, fuente, estanque, escultura, un pozo a un lateral de los establos, así como caminos empedrados.

En cuanto al cierre de la finca se puede decir que es un buen muro de mampostería que se adapta a la pendiente de la carretera. En esta tapia se encuentran tres entradas a la finca de las cuales destaca la entrada principal desde la plazuela: entrada acorde con la composición del palacio con dos pilares flanqueando la gran puerta de madera y el escudo de Mújica en un lateral, encuadrado éste en un templete y sobre una cornisa con dos machones.

Adyacente a la finca Aranzibia, a escasos tres metros, se encuentra el caserío Isusi. Responde a un claro volumen, alineado al otro lado de la estrecha carretera, a la altura de la casa de los guardeses. La fachada principal

zatxoaren aldera begira dago, Sudupe Goikoa auzoko aldaparen parean, eta, beraz, ikus-presentzia nabarmena du ingurumari horretan.

Isusi baserriak, nahiz eta ez den oso handia, kalitate oneko eraikuntza eta materialak ditu; oinplano laukizuzen sakon bat du, eta soilik bi solairu ditu. Etxe trinkoa da, fatxada guztiak ditu harlangaitzezkoak, eta harlanduzko kareharri handiak ditu beheko mailako inguratzaileetan; harlauza bereziak ditu, kremailera moduan jarrita, ertzei eusteko. Estalkia bi isurkikoa da, eta gailur perpendikularra du fatxada nagusian, atzealdean izan ezik; izan ere, han beste isurki paralelo bat erantsi zaio fatxadari.

Nahiz eta itxura xumea izan, baserriaren barruan egurrezko egitura interesgarri bat dago; egitura horren estalkian habeak, uhalak, tiranteak, besoak eta pieza bakarreko gapirioak daude, dena egurrezko ziriz lotuta. Euskarriak oin zuzeneko bi lerrokadurarekin antolatuta daude; oin horiek beheko solairuko harrizko jarlekuen gainean daude. Estalkian, antolaketa hori erdiko korridorearen bidez konpondu da, bi zutabe-ilararekin. Zutabe horiek uhal bana dute gainean, eta horien artetik zintzilikatuta daude zaldientzako uhal laburrak nahiz tirante kurbatuak; gainean, gailurra dago, erdiko pasabide bati bide ematen diola, zutoinik gabeko espaziorik garaienean.

XIX. mendetik XX. mendera bitarteko trantsizio-garai hartan, ohikoak ziren halako eraikinak, eta duen egitura eta fatxaden konposizioa kontuan hartuta, baserri neoklasikoa da jadanik.

Baserriko fatxada nagusia guztiz da simetrikoa, eta hiru altueratan antolatua dago; azken biak teilatupeari dagozkio. Bertikalean, hiru ardatzek antolatzen dute; erdikoa are gehiago nabarmentzen dute sarbideak eta burdinazko aurrealdea duen balkoi lautu batek. Bestalde, ipar-mendebaldeko fatxadak alboko bi sarrera ditu: bata zalditegirako eta bestea garajerako; eta bao txikiak ere baditu, gela aireztatzeko.

Funtzionalki, baserria modu arrazoizkoan dago antolatua: etxebizitza da beheko solairuan, ea erdiko korridoreak antolatzen du: zalditegirako sarbidea dago parean, eta sukaldea, gainerako egontokiak eta eskailera-zuloa alboetan; eraikinaren atzeko aldean, animalientzako ukuilua dago, eta sarrera propioa du saihetsetik; teilatupea gune ireki eta handi bat da, eta lastategi eta ganbara gisa erabili izan da.

se orienta hacia la plazuela de entrada a la finca del palacio, de frente a la subida del barrio Sudupe Goikoa, por lo que su presencia visual en este entorno es destacada.

Isusi, a pesar de ser un caserío de modestas dimensiones, presenta una buena calidad de construcción y materiales; consta de una profunda planta rectangular y tan solo dos alturas. Se trata de una casa compacta, todas las fachadas son de mampostería con grandes sillares de piedra caliza en los recercos del nivel inferior y singulares lajas colocadas a modo de cremallera como refuerzo en las cantoneras. La cubierta es a dos aguas, con caballete perpendicular a la fachada principal, salvo en la zaguera, donde se añade una tercera vertiente paralela a la fachada.

A pesar de esta sencilla apariencia, el caserío esconde al interior una interesante estructura de madera con una cubierta que incluye vigas, correas, tirantes, tornapuntas y cabrios de una sola pieza, toda ella unida mediante pasadores de madera. La ordenación de los soportes está formada por dos alineaciones de pies derechos sobre poyos de piedra en planta baja. En cubierta esa ordenación se resuelve mediante un pasillo central formado de dos filas de pilares. Sobre estos pilares sendas correas, entre las cuales se tienden cortas vigas caballo o tirantes curvos sobre las que descansa la cumbrera, dejando un paso central en la zona más alta libre de postes.

Se trata de una construcción habitual en la época de transición del siglo XIX al XX, y en su estructura y composición de fachadas es ya un caserío neoclásico.

La fachada principal del caserío es perfectamente simétrica y está ordenada en tres alturas, las dos últimas pertenecientes al bajo cubierta. Verticalmente se ordena mediante tres ejes, el central potenciado mediante acceso y un balcón enrasado con antepecho de hierro. Por su parte, la fachada Noroeste presenta dos accesos laterales: uno a la cuadra y el otro al garaje; y pequeños huecos para ventilar el camarote.

Funcionalmente el caserío se organiza de manera racional: vivienda en planta baja, ordenada mediante pasillo central con el acceso a la cuadra de frente y cocina, demás estancias y la caja de escaleras en los laterales; la parte trasera del edificio se dedica a establo para los animales, con entrada propia desde el lateral; el bajo cubierta es un amplio espacio abierto, usado como pajar y camarote.